








BULEGOKO PAPERA – INGURUMEN-IRIZPIDE SINPLIFIKATUAK

Prozedura ireki bidez kontratatzeko eta lehiaketa bidez esleitzeko ingurumen-irizpideak

Oinarrizko maila	Maila aurreratua
KONTRATUAREN XEDEA:	KONTRATUAREN XEDEA:
Kontratu honen xedea bulegoko papera [eta/edo paperezko bestelako materialak] erostea da. Paper hori gutxienez partzialki birziklatua izango da edo baso-ustiapen jasangarri ziurtatuetatik datorren zuntz-oinarri gordinarekin partzialki egina.	Kontratu honen xedea bulegoko paper [eta/edo paperezko beste material batzuk] % 100 birziklatua eta batere klororik gabeko zuritzeko prozesuarekin erostea da.
ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK (nahitaez betetzekoak):	ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK (nahitaez betetzekoak):
<p>1. Paperaren ekoizpenean erabilitako egur zuntzen gutxienez % 30 ziurtatutako baso-ustiapen jasangarrietakoak izango dira (FSC, PEFC edo baliokidea) eta/edo zuntz birziklatuak.</p> <p>Egiaztapena: Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1.goa, 2.a, 3.a, 4.a eta 5.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak)</p>	<p>1. Paperak honako baldintza hauek bete behar ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - % 100 birziklatua izatea (eta kontsumitu osteko zuntzen edukia \geq % 65). - Bere zuritzeko prozesua batere klororik gabeko izatea (TCF, PCF...). - Zuritasun maila gehienez % 80ekoa izatea, ISO 11475:2004 arauaren edo baliokideen arabera. <p>Egiaztapena: Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1.goa, 6.a eta 7.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak)</p>

<p>2. Paperak ezin du oinarritzko klororik izan (<i>elementary chlorine free, ECF</i>). Batere klororik gabeko zuritze prozesua ere (<i>TCF, PCF...</i>) onartuko da.</p> <p>Zuritasun-mailari dagokionez, % 90etik beherakoa izango da, ISO 11475:2004 edo baliokideen arabera.¹</p> <p>Egiaztapena: Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1.goa, 2.a, 3.a eta 7.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak)</p>	
<p>ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK:</p>	<p>ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK:</p>
<p>1. 1. motako ekoetiketaren batean definitutako isuriei eta konposatu kimikoei buruzko ingurumen-irizpideak betetzea balioetsiko da, adibidez: Aingeru Urdina etiketan, Europar Batasuneko Etiketa Ekologikoan, Beltxarga Zuria etiketan edo baliokideetan definitutakoak (% 10 arte).</p> <p>Egiaztapena: Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 1.goa, 2.a eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak)</p>	<p>1. Ontzietan eta bilgarrietan hobekuntzak egitea balioetsiko da (gehienez ere % 10):</p> <ul style="list-style-type: none"> - Material bakarreko bilgarria, paperezkoa/kartoizkoa [% 5] - Bilgarria gutxienez % 80 birziklatua izatea [% 5] <p>Egiaztapena: Proposamenean barne hartutako produktu bakoitzeko, berme hauetakoren bat aurkeztu beharko da: 7.a eta 8.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak)</p>

¹Zuritasun-maila administrazioak onar dezakeen txikiena izatea aholkatzen da. Erabilera berezietarako, hala erabakiz gero, % 80-90 arteko zuritasun-mailako papera eros daiteke. Laurogeita hamarretik gorako zuritasun-mailako papera lortzeko, zuritzaile optikoen bidezko tratamendu bat egin behar da. Ohiko erabileretarako, zuritasun-maila % 60ra arte jaitsi daiteke, langileen sentsibilizazioaren arabera.

EGIAZTAPEN-DOKUMENTUAK (*):			
1. Aingeru Urdina etiketa		5. PEFC	
2. Europar Batasuneko Etiketa Ekologikoa		6. Laborategiko testa	
3. Beltxarga Zuria etiketa		7. Fitxa teknikoa	
4. FSC		8. Deklarazioa	
<p>(*): Horiek dira baloratuko den espezifikazio edo irizpide bakoitzaren betetzea modu argiengan bermatzen duten ingurumen-ziurtagiriak eta ekoetiketak edota informazioa jaso dezakeen dokumentazioa, baina egiaztapen-dokumentazio baliokidea ere onartuko da, finkatutako irizpideak betetzen direla argiro frogatzen badute.</p>			

OHARRAK:
<p>Dokumentu honetan garatutako irizpideez gain, paperaren iraunkortasunarekin eta inprimatzeko eta fotokopiatzeko egokitasun teknikoarekin lotutako baldintzak adieraztea interesgarria izan daiteke.</p> <p>Informazio gehiago nahi izanez gero, www.ihobe.eus webguneko Erosketa Publiko Berdearen atala kontsulta dezakezu edo Ihobekin harremanetan jar zaitezke, bide hauetatik:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tel.: 94 423 07 43 • Helbide elektronikoa: compra.publica@ihobe.eus